

7. IKASGAIA. BALTZUEN ZUZENBIDEA.

KAPITALEZKO BALTZUEN DESEGITEA ETA KITAPENA

I. SARRERA

II. DESEGITEA

- 1. Kausak**
- 2. Prozedura**
- 3. Administratzaileen erantzukizuna**

III. KITAPENA

- 1. Kontzeptua**
- 2. Kitatzaileen izendapena**
- 3. Funtzioak**
- 4. Erantzukizuna**
- 5. Berpiztea**
- 6. Iraungipena**

KAPITALEZKO BALTZUEN DESEGITEA ETA KITAPENA

I. SARRERA

Desegitea eta kitapena eraketa prozesuaren kontrako prozesu bezala definitu dezakegu; egintza juridiko multzo bat da baltzuaren “heriotz juridikoarekin” amaitzen dena. Heriotz hori desegitearekin hasten da. Desegiteak prozedura bat irekitzen du, hainbat eragiketa ondoren baltzuaren desagertzearekin amaitzen dena. Pertsona juridikoari amaiera emateko, honen eskuetan dagoen ondarea “askatu” behar da, zorrak ordaindu ondoren geratzen dena bazkideen artean banatuz. Legean jasotzen den eraentza, beraz, likidaziora, kitapenera, zuzentzen da. Baina honek ez du esan nahi ez dagoenik baltzuaren iraungipenik enpresaren kitapenik gabe, adibidez, fusio kasuetan, eraldaketa kasuetan edo enpresaren salmentarekin egiten den iraungipenean.

Azken aukera honek enpresaren iraupena posible egiten du eta bazkideei kitapen kuota jasotzeko eskubidea prezioaren banaketaren bitartez ematen die, honela, bestalde, kitapen prozedurak ekartzen dituen gastuei aurrera egin gabe. Kasu hauetan, ez bada iraungipena erregistrora eramaten, jarduera gabeko sozietateak sortzen dira.

Kapitalezko baltzuen desagertze juridikoaren prozesuak hiru fase edo une dituela esan genezake.

Esan bezala, prozesua *desegitearekin* hasten da. Lehenengo pausua besterik ez bada ere, desegitak baditu bizitza sozialarentzako garrantzitsuak diren ondorio juridikoak. Baltzuak bere nortasun juridikoa mantentzen du, baina, bere helburua aldatu egiten da. Nahiz eta helburu amankomuna mantendu, orain mantentze eta kitapen lanetara zuzentzen da. Organuetan ere aldaketa esanguratsu bat ematen da: administrazio organua desagertzen da eta likidatzaileak izendatzen dira.

Desegiteak *kitapenaren* fasea irekitzen du eta desegindako baltzuak trafikoan izan ditzakeen zor guztiak ordaintzeaz arduratuko da organu berria. Tradizionalki ulertu da likidatzaile hauek ezin zituztela eragiketa ekonomiko berriak burutu, baina orain onartzen zaie probisionalki jarduera ekonomikoarekin jarraitzea zorrak ordaindu ahal izateko eta bazkideen kitapen kuota optimizatzeko helburuarekin bada. Zorrak ordaindu ostean oraindik ondarrerik badago bazkideei dagokien kitapen kuota ordainduko zaie eta hau ematean prozesuaren azken fasea emango da *desagerpena*, alegia.

Aipatutako hiru fase hauek elkarrekin eman daitezke baina oso kasu berezietan, esaterako, baltzua desegitean trafikoan inongo harreman juridiko edota ordaintzeko inongo zorrik ez dagoenean.

II. DESEGITEA

1. Kausak

Legeak 360, 361 eta 363 eta 368. artikuluetan jasotzen ditu desegite kausak. Bestalde legeak onartzen ditu estatutuetan jasotako beste desegite kausa batzuk (363. h art.). Halako kausak egitura pertsonalizatua duten baltzu kontratuetan jasoko dira batez ere.

Bazkideen borondatea izango da lehenengo desegite kausa, hauen autonomia edo borondateak zuzentzen baitu bizitza sozial guztia, baina, beste interes batzuk babesteko, legeak jasotzen du hainbat kasutan desegiteko beharra. Alderantziz bazkideen borondatea desegitea izanda posible da jarraipena galdatzea (377. art.).

Bestalde kontutan izan behar da badagoela desegite kausa bezala jokatzeko duen beste supostu bat: baltzuaren deuseztasuna (57. art.).

Legeak hiru eskema desberdin jasotzen ditu desegite kausen jokatzeko modua aztertzen badugu.

1.1. Batzarraren akordioa (368. art.).

Desegite kausa hau batzarraren subiranotasunaren ondorio logikoa da. Baltzua bazkideen borondatearengatik sortzen da eta beraiek

erabaki dezaketa hone iraupena edo desegitea. Legeak eskatzen duen bakarra da estatutu aldaketarako behar diren quorum eta gehingoak errespetatzea.

1.2. Zuzenbide osozko desegitea

Kasu hauetan desegitea automatikoki gertatzen da, bazkideen akordioaren beharrik gabe. Hiru dira desegita kausa hauek:

- Estatutuetan ezarritako epe-mugaren heltzea (360.1.a art.)
- Kapitala legeak ezarritako gutxieneko kopurutik behera murriztea eta urte beteko epean ez irregulartasun honi amaiera ematea (360.1 b art.)
- Konkurtso egoeran egonik, kitapen fasearen irekitzea (361. 2 art.). Kasu hauetan kitapen hori konkurtsal izango da, ez lege honetan jasotzen dena.

1.3. Bidezko arrazoi baten presentzia

Azken kasu hauetan bi dira desegitea emateko baldintzak: desegite kausa baten presentzia eta batzarraren desegitearen aldeko akordioa (362. art). Desegite kausak 363. artikuluan jasotzen dira:

- Baltzuren objektua osatzen duten jarduerak ez gauzatzea (urtebeteko epea ematen du legeak irizpide bezala)
- Baltzuren objektua osatzen duen enpresa amaitzea. Objektu horren izaera iragankorra bada emango da: kontzesio administratibo baten ustiapena, autopista baten eraikuntza, hiri olimpiko batena, e.a.
- Helburu sozialaren bete ezina. Ezintasun hori arrazoi tekniko edo juridikoengatik eman daiteke. Irabaziak lortzeko itxaropenik ez izatea ere hemen barnera dezakegu. Edozein kasuten ezintasun hau ageria izan behar du, argia eta behin betikoa.
- Organu sozialen gelditzea. Batzarraren blokeo izango da arazoa, akzio/partizipazioen banaketak ezinezkoa egiten duenean akordioak hartzeko behar diren gehiengoak lortzea.

- Galera larriak. Ondare netoa kapitalaren erdia baino txikiagoa den zenbatekora gutxitu bada galerak izateagatik eta ez bada gehitu edo murrztu, beti ere ez bada bidezkoa konkurtsoa irekitzea. Deskapitalizazioa krisi egoeraren indikatzailerik da eta kaudimengabeziaren prebentzio bezala jokatu nahi du kausa honek.
- Kapitala legeak ezarritako gutxieneko kopurutik behera geratzea ez denean legearen agindua betetzeko murriztu.
- Kapital murriztapen baten ondorioz boturik gabeko akzio/partizipazioen balio izendatua ordaindutako kapitalaren erditik gorakoa bada, eta bi urte pasa ondoren ez bada egoera hori zuzendu.
- Estatutuetan jasotako beste edozein kausa. Kontutan izan beharko dira muga bezala baltzu mota hauen printzipio konfiguratzailerik (28. art.). Honela erantzukizun mugatuko baltzuan, izaera pertsonalizatuagoa duelako, ahalko dira egoera pertsonalei lotutako kausak jaso, adibidez bazkideen heriotza. Baltzu anonimo batean, aldiz, ez litzake honelako kausa bat onartuko, bere izaera korporatiboa dela eta. Eztabaidatzen da baita posible litzaken salaketa eskubidea jasotzea desegite kausa bezala. Baina baltzu hauetan erabakiak gehiengoak hartzen ditu, eta printzipio honen aurka egon daiteke horrelako eskubide bat.

2. Prozedura

Legeak 363. artikuluan aurreikusten dituen desegite kausak Batzar Orokorraren akordioa beharko dute (364. art.). Akordio hau *erantzukizun mugatuko baltzuetan* gehiengo arrunta beharko du (198.art.) eta *baltzu anonimoan* berriz legea eskatutako quorum eta gehiengo arrunta (193 eta 201. art.). Horretarako administratzaileek batzarra deitzeko obligazioa dute (365. art.), baina batzarrak ez du derrigorrez desegitea adostu behar, zilegia da baita desegite kausaren remozioa (365.2 art.).

Batzarrak ez badu dagokion akordioa hartzen, desegitea edo remozioa, edozein interesdunek eskatu dezake desegite judiziala (366. art.). Administratzaileak, aldiz, behartuak daude desegite hau eskatzera (366.2 art.).

3. Administratzaileen erantzukizuna

Administratzaileek Batzarrerako deia egiten ez dutenean (365.art.) edota desegitea judizialki eskatzen ez dutenean (366.art.), bi hilabateko epea dutelarik bi kasuetan, baltzuaren hartzekodunen aurrean erantzun beharko dute. Erantzungo dute solidarioki –beraien artean eta baltzuarekin- legezko desegite kausa ostean sortutako obligazioengatik. Garrantzi praktikoa handia duen erantzukizuna da, batez ere desegitea arrazoi ekonomikoengatik eman denerako. Erantzukizuna legearen betebeharra ez betetzeagatik sortzen da, beraz hartzekodunek ez dute ez kalterik ez harreman kausalik frogatu behar eraentza orokorraren kasuan gertatzen den moduan (367. art.).

III. KITAPENA

1. Kontzeptua

Sarreran esan bezala kitapena desegiteak irekitzen duen bigarren fasea da eta bere helburua batik bat baltzuaren jarduerarekin amaitzea da. Horretarako zorrak ordaindu beharko dira, kredituak kobratu eta indarrean dauden kontratuei amaiera eman. Legeko 371. artikulua argi esaten duenez, desegindako baltzuak oraindik nortasun juridikoa izaten jarraitzen du, baina trafikoan adierazi behar da bere egoera berria zein den eta horretarako *kitapenean* (“*en liquidación*”) hitza gehitu behar zaio bere deiturari.

2. Kitatzaileen izendapena

Desegiteak administrazio karguaren desagertzea dakar. Aurrerantzean baltzuaren kudeaketa eta ordezkapena kitatzaileen esku geratzen da.

Estatutuetan finkatu daiteke zein izango den likidatzaile desegitearen kasuan. Ez bada ezer aurrikusten desegite akordio hartzen duen Batzarrak izandatuko ditu. Baina legeak jasotzen du baita arau dispositibo bat

hutsuneak galerazteko: ez bada ezer esaten administratzaileak jarraituko dute kitatzaile bihurtuz (367. art.).

Salbuespen gisa, desegitea konkurtsoaren barnean kitapena hasteagatik ematen bada, ez da kitatzailerik izendatu behar kitapen konkurtsalarekin jarraituko delako (376.art.).

3. Funtzioak

- Kitapen fasea hasten denetik hiru hilabeteko epean likidatzaileak inbentario eta balantze bat egingo dute desegin zen egunari erreferentzia eginez. (383.art.)

- Likidatzaileen lana izango da oraindik zintzilik dauden eragiketak bukatzea eta kitapena emateko oraindik burutzeke daudenak egitea. (384.art.)

- Beraiei dagokie kredituak hartu era zor sozialak ordaintzea. Gainera, baltzu anonimoetan ekarpenak ez badira guztiz egin, kitatzaileek galdatu ditzazkete (385.art.)

- Beraiek eman beharko dute baltzuko kontabilitatea, baita, liburu, dokumentazio zein baltzuaren korrespondentzia. (386.art.)

- Ondasun sozialak besterendu egin beharko dituzte (387.art.). Kontutan izan behar da, printzipioz, bazkideei kitapen kuota diruz ordaindu behar zaiela (393.1 art.). Dena den erabakitzen badute ondasunen bitartez ordaintzea, hauek ez dira salduko (393.2 art.).

- Kitapenaren azken balantzea aurkatzeko epea igarotzen bada inongo aurkopenik gabe edo irmo bihurtzen bada ebatzi duen epaia, bazkideei kitapen kuota ordainduko zaie. (394.art.)

4. Erantzukizuna

Kitatzaileek erantzule izango dira bazkide edo hartzekodunen aurrean, bere kargua dela eta doluz edo neglijentziaz jokatu badute (397.art.). 2011 egindako erreformak aldaketa garrantzitsu bat ekarri du, legeak neglijentzia larria eskatzen baitzuen ordurarte. Ala ere ez dira ondo ulertzen

administratzaileen erantzukizunarekin dauden desberdintasunak. Ez da jasotzen baltzuekiko erantzukizunik, baltzua oraindik ere bizirik dagoenean. Ez da ezer esaten solidariotasunari buruz, kontutan izanda kitatzaile bat baino gehiago egon daitezkeela. Tradizionalki legegilea ez da kitatzaileekin batere zorrotza izan, eta tradizio hori mantendu egin da azken erreformetan, nahiz eta doktrinan askotan kritikatu izan. Dena den posible da beste interpretazio bat egitea. Ulertu daiteke erantzukizun “berezi” hau, bakarrik baltzua iraungi ondoren ematen dela, eta baltzua bizirik dagoen bitartean aplikagarria zaiela kitatzaileei administratzaileen erantzukizunaren sistema. 375.2 eta 397. artikuluen interpretazio sistematikoak konponbide hau onartuko luke.

5. Berpiztea

Batzar Orokorak erabaki dezake desegindako baltzu bat berpiztea, baina, horretarako beharrezkoa izango da honakoak ematea: desegite kausa desagertzea, ondare kontablea kapital soziala baino txikiagoa ez izatea eta kitapen kuota bazkideei oraindik ordaintzen hasita ez egotea. Hala ere, berpiztea ezin emango da desegite kausak 360. artikulukoak badira, hots, de zuzenbide osozkoak deritzogunak. (370.art.). Ados ez dagoen bazkideak banantze eskubidea izango du.

6. Iraungipena

Kitapen eragiketa guztiak amaitu ondoren, kitatzaileek iraungipenaren eskritura publikoa egingo dute bertan honako baieztapenak agertu beharko direlarik: a) azken balantzea onartua izan dela (ez da aurkapenik egon edo aurkapenaren ondorioz emandako epaia irmoa da); b) hartzekodunak ordaindu direla edo beraien kredituak kontsignatu direla; c) bazkideek jaso dutela dagokien kitapen kuota eta hau kontsignatua izan dela.

Aipatutako eskritura horretan kitapeneko azken balantzea eta bazkideen zerrenda barneratuko da zeinetan azaldu beharko den bazkide bakoitzark jaso duena kitapen kuota kontzeptuan (395.art.). Hau garrantzitsua da ordaindu gabeko zorrak agertzen badira kitapena amaitu ondoren (399. art.), bazkideen erantzukizuna kitapen kuota horretara mugatuko delako.

Eskritura publikoa Merkataritzako Erregistroan inskribatuko, dena den inskripzio honek efektu deklaraziale soila du.